

Goierri tarra

288. zenbakia

2005eko urriak 7

BERTSOLARITZAREN GARAIA



> ez duzu jakingo zein hautatu.

harria gresak



contacto > Zelaeta 1 > Beasain > 20.200 > T. 943 385 466 > F. 943 161 975 > harriagresak@harriagresak.com > www.harriagresak.com



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Medikuntza eta zirurgian lizentziatuak:
I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizontasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
943 88 22 51
Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



RPS-32/04

BERTSOTAN

Bertsolari txapelketa nagusia



Patxi Iraola

Urri hilaren bederatzian bi mila eta bostean txapelketa bat hastera doa bertsolaritzan ospean prueba denak egin ondoren herri bat eta bestean ea txapela nork jazten duen lanak bukatu ostean.

Goierritarrak ere badoaz hiru bertsolari jator lan egunera iritxitzean ez dute egingo opor hirurak ere argiak dira haxe aitortzera nator suerte ona Goikoetxea berdin Iker eta Aitor.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Erredakzioa: Lorea Iparragirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Bittor Gorria

7. Ingurugiro txokoa: Udazken garaian, onddoak direla eta

8. Errezeta: Mondeju pastela babarrun kremaren gainean
Aholkua: Hankako azazkala haragian sartzen denean

10. Elkarrizketa: Goierriko Hitzak urte bete

14. Erreportajea: Sasietaren kanpaina berria

17. Elkarrizketa: Bertsolari txapelketa nagusia

23. Non zer?

24. Debaldeko iragarkiak

30. Argazki zaharra



Goierritarra Goierriz kanpo jasotzeko tarifak:


Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 15 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 27 euro
Europaz kanpo: urtean 39 euro

Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Gabiria, Itsasondo,
Ormaiztegi eta Zaldibiako udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bittor Gorria

Ikasturte berria denontzat

Milaka haur eta gaztek, uda nahiko hutsik eta isiltasunean igaro duten gure herrietako ikastetxeetako gelak aurreko asteetan zehar bete dituzte.

Egunak joan, egunak etorri, bere irakasle eta hezitzaileen inguruan eseriko dira. Hor saiatuko dira eta jarriko dute beren arreta osoa hainbat irakaslek benetan garrantzitsua den lan horretan.

Guztiok konturatuko al gara lan hori, hezkuntza, heziketa, garrantzitsu bezain zaila dela. Baditugu nahiko adibide, bereziki azken urte hauetan, hortaz jabetzeko. Eta "denok" esatean noski, "denok" esan nahi dut. Batez ere, baina ez bakarrik, ikasle, guraso eta irakasleak.

Bakoitzak erabiltzen dugun jarrera bereziki agerian, ez al du zerikusirik haurrek eta gazteek ikusiko eta ikasiko duten portaeraz? Adibideak? Betikoak! Zer ikasiko dute semaforo gorria errespetatzen ez dugula ikusten badute? Zakarrak zakarrontzitik kanpo edo behar ez den ontzian botatzen ditugula ikustean? Gure hitz zatarren jarioa, hizketaldi desgokiak entzutean?

Bakoitzak, ez beste inork, kontuan hartu beharko dugu gure portaeraren kalitate kontrola; gurea eta ikusten dituzten komunikabideetako ere bai.

Hainbat gai garrantzitsuren artean ikasiko ote dute nola bizi ere? Irakatsiko ote diegu gure haur eta gaztetxoei egoki eta ondo bizitzen? Guk daramazkigun bide arruntetatik abiatzen badira, iritsiko ote dira zoriontsu izatera?

Badirudi horretarako, zoriontsu izateko, nahiko diru eskuetan edukitzea behar beharrezkoa jotzen dutela; zenbat eta diru gehiago, orduan eta zoriontsuago. Eta, dirurik gabe ere, bizitza gozamen bi-

txia izan daitekeela erakusten saiatuko baginateke...?

Izango ote dugu ausardia txikitatik hasita dituzten nahiera eta gutizi guztiak ez onartzen eta ez betetzen, lehenengo momentuan, aitatxorekin, amatxorekin edo aiton-amonekin, zapuztuta daudena- ren itxura egiten badute ere?

Eduardo Galeano, idazle uruguaiarra dio gauzak adoratzeko ditugula, bizi berriz, mespretsatu. Agian: mugikorra, internet, futbola, abiadura handia, zarat... adoratzeko ditugu, ezinbesteko droga eta sasijainko bihurtu ditugu, bizi duina, ondradua berriz, mespretsatzen dugu. Teoriz ez bada horrela, sarritan praktika mailan, bai.

Konturatu gabe bezala, lehia eta norgehiagoka gogorretarako, arrakastarako, jauntxotasunerako bultzatzeko arriskua dugu denok.

Bere ikaslanetan, nola edo hala, "Bikain" asko, lagunak baino gehiago, iristea ezartzen diegu helmuga. Bizitza lasterketa dela ikasiko dute guregandik; eta podiumera igotzen ez dena, ez dela inor.

Bizitzako "trenera" igor behar dela ikasiko dute, baina... jakingo al dugu berriak argitzen bizitzako "tren" honek norantz garamatzan?

Nola transmititu bizitzak dituen benetako gozamenak, gu lanpetutik sumatzen bagaituzte mila gora-behera tuntunekin, adiskidetasuna eta edertasuna dastatzeko betarik hartzen jakin gabe?

Zer motatako Jainkoa eta sinismena adieraziko dute Elizarekiko ditugun hartu emanak? Gure haserreak eta era askotako agresibitateak jasaten badituzte, nondik nora ikasiko dute bakean eta elkar miresmenean bizitzera eramango gaituen bidea?

Ba al ditugu guk geure funtsezko baloreak, gure bizitza ondradu egiten dutenak eta zentzua ematen diotenak, gure gazte eta haurrentzat eredu izateko moduan?

Ikasturte berri bat hasi da eta guk eman nahi diegu hasiera, benetan **berria** izan dadin eta bestelakoa, ez ohikoa?

Hona gure aurrean erronka zorrotza: beste era hobean bizitzeko pausuak hasi. Ekingo al diegu gogoz, serio, pozik...? Hala izanik, denontzat hobe!

Irakatsiko ote diegu gure haur eta gaztetxoei egoki eta ondo bizitzen? Guk daramazkigun bideetatik iritsiko ote dira zoriontsu izatera?

Eramangarri bat behar al duzu?

Credigazte Ordenagailua

Orain Gaztekutxarekin, azken belaunaldiko Toshiba eramangarri bat eskura dezakezu, oso prezio berezian eta sinestezina den finantzaketarekin. Ordenagailu arina, praktikoa eta **WI-FI** teknologiaz ekipatua. Zure gustura mugi zaitezten.



Eramazu hau bezalako **PC Toshiba** bat finantzaketa apartarekin.

INFORMA ZAITEZ HEMEN
www.gaztekutxa.net

100 euroko diru-laguntza
ikasleentzat!



gazte kutxa



kutxa

Garraio publikoa egokitzea beharrezkoa mugikortasun hobeago baten bidean



Hainbat eta hainbat kontzientziazio kanpaina egiten dira kotxerik gabeko garraio baten alde, askotan ordea ahaztu egiten ditugu tokiko garraio publikoak izan ditzakeen gabeziak. Nahitaezkoa da gaur egungo gizartean zerbitzu publiko on bat eskura izatea. Honela, Goierri dugun aukera aztertuta (Goierrialdea autobus zerbitzua, Taxi zerbitzua, tren...) eta garraio zerbitzua hobetearren hausnarketa bat prestatu da.

Goierriko garraio publikoaren zerbitzua egokitu eta hobetzeko saiakera honetan mugikortasun sistema berrietan aditua den LEBER enpresako Iosu Ramírez eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio saileko zuzendaria den Kote Olaizolaren hitzaldiak izan ditugu.

Iosu Ramírez-ek autobus zerbitzu erregularren aurrean "Eskaera bidezko zerbitzu" -ak zenbait toki eta egoeratan izan ditzakeen abantailak aipatu ditu. Landa eremuko herri sakabanatuetan (Alzaga, Gaintza, Mutioloa, Zerain,...) autobus zerbitzu erregularrak ez du berez zentzu handiegirik eta aipatu dituen zenbait herrialdeetako adibideek erakusten duten bezala, gehienetan erabiltzaileen igoera bat lortu da eskaera bidezko zerbitzua ezartzean.

Eskaera zerbitzu hau ohiko zerbitzu erregularrekin lotzea posible izaten da eta egun batetik bestera ordutegi eta bidea diseinatzea ere posible da. Zerbitzuak bariante asko baditu ere, oinarrian telefono bi-

dezko erreserba sistema batean datza, erabiltzaileak, irtegunea, helmuga eta irteera orduaz informatzen du eta sistemak erreserba multzoarekin hurrengo egunerako ruta bat diseinatzen du.

Bestetik Foru Aldundiko Kote Olaizolak Gipuzkoak dituen garraio eta mugikortasun arazo eta gabeziak azaldu ditu, besteak beste kotxeen kopuru igoerak eta honen erabilera zentzugarriak dakartzkien arazoak, Gipuzkoatik egunero igaro diren 8.000-10.000 kamioiak, gaur egungo gizarteak mugitzeko duen modu indiskriminatua...

Zenbait datu interesgarri ere eman zituen:

- Kotxeak duen bizitzaren %5a erabiltzen dugu soilik, gainontzeko denboran geldirik dago.
- Donostian dagoen mugimendu guztia garraio publiko bidez egingo balitz eguneko 350.000 euro aurreztuko liriteke.

Garai batean jende gutxi zuen ibilgailu pribatua eta gehiengoak garraio publiko erabiltzen zuen, bidaia iraupenak garrantzi gutxi zuen orduan. Gaur ordea, zerbitzu berdina eskeintzen da baina jendeak kotxea edukitzean ez du zerbitzua berdin erabiltzen. Kotek dioenez distantziaren bidez erlazioa hobetzen ez den bitartean gutxi dago egiteko.

Foru Aldundiatik lortu nahi den helburu nagusia gaurko bide sareek duten saturazio maila jaitea da.

Goierri Foru Aldundiak bete nahi dituen helburuak

eta aurreikusita dauden garraio zerbitzuen zenbait aldaketa ere azaldu ditu:

- Goierri Donostiarekin hobeto lotzeko Renferi tren zerbitzu azkar bat eskatzea, Zumarraga-Basain-Tolosa-Donostia-Irun traiektua beteko lukeena.
- Goierri dituen herri guztien arteko konexio egokiak bilatzea eta loturarik gabeko herririk ez uztea, tren zerbitzuaren ordutegiei ondo moldatuz (Goierrialdea autobusen zerbitzua, taxiak...).
- Landa eremuko herri despopulatuak beste era bateko garraio publiko eskeintzea, orain arteko autobus handiak ordezkatzuz eta herri hauetan aukera handiagoak ematen dituen mikrobus edo taxi bidezko zerbitzu bereiztua emanez.

Ondorio nagusiak eta ekintza posibleak

Zerbitzu publiko erabiltzeak abantaila bat eskaini beharko luke garraio pribatuaren aurrean, benetan kotxea hain erraz hartu ez dadin. Hau lortzeko nahitaezkoa da garraio publikoak eskeintzen duen zerbitzua gaur egungo eskaerei moldatzea eta hobetzea. Atera diren ekintza posibleen artean:

- Autobus zerbitzua lan ordutegietara egokitzea eta CAFeko esperientziaren funtzionamendua aztertuta eta beste enpresetan aplikatu daitezkeen ikusketak.
- Langileek lantokirako joan-etorrietan kotxea har-

tu ez dezaten, autobus zerbitzu on bat edukitzeaz gain, zenbait neurri hartu beharko liriteke kotxe konpartitu edo oinez datozenei nolabait saritzeko: gasolinarako bonoak, aparkatzeko abantailak...

- Goierrialdeak gaur eskeintzen duen zerbitzuak bere onean zenbait hutsune edo gabezi dituzenez, zenbait ekintza proposatzen dira:

- ✓ LEBER-ek aurkeztutako "Eskaera bidezko zerbitzua" Goierriko landa-guneetako herrietan funtziona dezakeen ikusi (mikrobusa, taxiak,...). Aurretik beharren azterketa bat egin beharko litzateke.
 - ✓ Dauden autobus lineak mantenduz, ordutegia gaurko beharretara egokitzea (6 urte dira ordutegia berritu ez dela)
 - ✓ Bono bidezko sistema jartzea.
 - ✓ Ordutegia berritzea eta ulertzeko erraza jartzea.
 - ✓ Autobus geldiguneak ondo seinalizatu eta noiz pasatzen diren ondo azalduko duen informazio panelak jartzea.
 - ✓ Goierrialdea autobus zerbitzuak elbarrituen-tzako prestatutako autobusak martxan jartzea.
- Aipaturiko gai hauen inguruan zerbaitek gehiago jakin nahi baduzu, deitu telefono honetara: 943 164172 (Agenda 21eko teknikariak)

Udazken garaian, onddoak direla eta

Perretxikuen mundua osatzen dutenak ez dira onddoak, zizak, gibelurdinak eta lanpernak bakarrik. Onddoen taldea oso zabala da eta ezaugarri ezberdinak azaltzen dituzte. Batzuek jangarriak diren bitartean, besteak toxikoak, aluzinogenoak ere badira, eta penizilinaren kasuan bezala sendagai modura ere erabili ohi dira. Adibide gisara, janariaren lizunak barne, *Penicillium notatum* lizunetik lortzen den antibiotikoa du-gu. Beste onddo batzuk, ordea, gaixotasunak sortzen dituzte filoxera, txankroa, botritisa...mahastietan, gaztainondoetan eta abar.

Teknikoki Onddoak bi talde ezberdinetan bereiz daitezke: zelulabakarrekoak eta zelulanitzak.

Zelulabakarrekoen artean ezagunenak Legamiak dira. Hauei esker ogia eta ardoa izatea ahalbidetzen da. Hartzidura alkoholikoaren bidez ogi oreka harrotzen da eta muztioa ardo bihurtu. *Sacharomices* generoa adibidez, garagardoa eta ardoak egiteko erabiltzen da.

Aldiz, zelulanitzak hifa egitura dauka, hari fin baten itxura dute eta lur edo enbor azal azpian bizi ohi dira. Onddo garatuenak, esporak sortu eta barreiatzeko perretxiku egitura osatzen du. Karpoforoa deritza, eta mendian begi bistaz ikusten ditugunak dira. Nolabait adieraztearren, landareen lorea bezala litzateke, polena beharrean esporak ura eta haizearen bitartez ba-



Anthurus Archeri

rreiatzeko erabiltzen duten egitura genuke.

Batzuetan onddoa landarearekin elkartzen da sinbiosian. "Elkarbizitza"honek bi izakion onura bilatzen du. Honi mikorrizazioa deritza (ikus alean aterariko artikulua). Orkideak, esate baterako, beren haziek erreserba urrikoak dituztenez estrategia modura onddoak mikorrizatua hedatzen dira. Onddoek haziari elikagaia lortzen laguntzen diote landare berria eratzea ahalbidetuz.

Landare anitzek, koniferak, fagazeak eta betulazea familiak besteak beste, mikorrizak dituzte sustraian.

Onddoak algekin ere elkartzen dira, hauek Liken izenez ezagutzen ditugu. Baldintza gogorretan, algak fotosintesiaren bidez (eguzki argi bitartez) elikagaia lortzen du eta onddoak hezetasuna ematen dio bien bizi iraupena ziurtatuz.

Egun, ingurugiroaren kalitateaz hitz egitean, izaki delikatuaren presentzia eta itxurak ekosistemaren egoeraz hitz egiten digute.

Hauek Bioindikadoreak bezala erabiltzen ditugu eta likenak izaten dira neurri handi batean. Lobaria, adibidez leku garbietan eta kutsadurarik gabekoetan bakarrik bizi da.

Egun hauetan, bide hertzak kotxez bete dira eta mendiak perretxiku zaleez. Hemendik, onddoek naturan funtzio ugari betetzen dituztela ikusirik, hartu behar ez ditugun perretxikuak errespetatzearen eskaera luzatzen da. Biltzaileen jarrerari dagokionez, entzuten denaren baitan, bilketa masiboa egitea beharrezkoa ote den galdetzen da. Beharbada helburuak, saskia betetzeak, oker bidera eraman gaitu. Mendia ibili, natura ezagutu, gozatu, arnasa lasai hartu eta bizitzarekin harremanean egon beharrean, hauek baztertzeraren eraman gaitu. Basoan badago zer ikusi, usaitu, ukitu eta hartu...noski. Baina barne lege bat ere badago, datozen belaunaldiak zerbait utzi beharko diegu, ezta?.

"Ezagutzea maitatzea da."

Koro Irazustabarrena

JAKIN BEHARREKOAK

Antibiotikoek eta autoek zerikusia dute alergiarekin. Estatu Batuetako iker-tzaile batzuek baieztatu dute antibiotiko asko hartzerakoan, alergia izateko aukerak ugartzen direla. Era berean, Alemaniako Munich hirian egindako ikerketa bati esker jakin dute nola eragiten dion autoen keak alergiari. Dirudienez, airean dauden proteina-molekulak kaltegarriagoak bihurtzen dituzte autoek isurtzen dituzten gasek.

Arrainek klima-aldaketari erantzun diote. Klima-aldaketak ozeanoetako ura berotzen du; eta horrek, besteak beste, arrainetan ere badu eragina. Ingaterrako iker-tzaile batzuek Ipar itsasoko ur sakonetan ohikoenak diren 36 arrain-espezie aztertu dituzte 1977tik eta 2001era bitartean. Denbora-tarte horretan, uraren temperatura 1°C igo zen, eta, ondorioz, arrain-populazioaren heren bik ur hotzagoe-tara -ur sakonagoetara, iparralderago edo biak batera- migratu dutela ikusi dute.

Petrolioaren agortzeak badakar hainbat buru hauste. Batzuk borondaterik onenarekin arazoaren irtenbide batetan biodieselari begiratzen dioten bitartean, beste batzuk hausnarketa haratago emanez, mundu mailako ekonomian gehien eragiten duten enpresek erregai alternatiboa badutela ikusi dute. Alegia, petrolioaren amaierako badagoela erregai berririk, hidrogenoarekin lortutakoa. Kontua, gertatzen denari sosik gehien ateratzean legoke.

SUKALDEAN

Mondeju pastela babarrun kremaren gainean



Nerea Gomez
Nere Etxea jatetxea
Lazkao

Osagaiak

- Litro erdi nata
- Litro erdi esne
- 4 arraultza osorik
- 4 arraultzen gorringoa
- 2 edo 3 mondeju
- Gatza
- Eskukara on bat babarrun beltz

Lehenengo babarrun krema egingo dugu. Horretarako, aurretik babarrunak uretan eduki ondoren, egosi egingo ditugu. Behin egosita daudela, batitu eta txinotik pasatu gatza botata.

Gero, pastela egingo dugu. Osagaietan agertzen diren gauza guztiak nahastu eta batidora pasatzen da (mondejuari noski azala kendu behar zaio).

Nahastutakoa molde ba-

tean jarri behar da eta Maria bainuan eduki ordu erdi batez, edota labea indarerdian dagoela, hiru ordu laurdenez. Egina dagoen jakiteko, nahikoa da labana baten punta sartzea eta garbia ateratzen bada mamitua dagoela esan nahi du.

Babarrun krema beroa erretilu batean jarri eta pastela gainean jarri behar zaio. Ibarako piperrekin dekoratu daiteke platera.

Hankako azazkala haragian sartzen denean

Azazkala hankako haragian sartzea edota "unicriptosisa" ohikoa da pertsona askorengan. Molestia handiak sortzen ditu eta podologoaren interbentzioa eskatzen du gainera.

Zergatik gertatzen da hori azazkalarekin?

- Oinetakoak edo zapatak punta estukoak ibiltzeagatik. Izan ere, horrek behatzak asko estutzen ditu.
- Azazkala gaizki mozteagatik. Beti zuzenak moztu behar dira baina ez gehiegi.
- Golpeek azazkala behatzean sartzea eragin dezakete.
- Azazkalaren anatomiako

anomaliek ere eragin dezakete horretan.

- Gehiegi izerditzeak haragia biguintzen du eta azazkala errazago sartzen da.
- Azazkala inguratzen duten ehunen atrofia...

Sintomak eta seinaleak

Mina, hantura edo haztea eta azazkalaren ingurua gorrituta egotea dira besteak beste seinaleak. Gainera, aipatu behar da, kasu horietan egun gutxitan infekzio bat sortzeraino ere heldu daitekeela zauria.

Tratamentua

Tratamentuaren lehenengo pausoa arazoak eragiten ari

den azazkal zatia ateratzeko da. Hori egin ondoren, azazkala behatzeko haragian zergatik sartu denaren arrazoa aurkitu behar da eta tratamentu egokia jarri horrentzako. Kasu batzuetan ebakuntza kirurgikoa egin behar izaten da, baina ez da normalena.

Azazkal osoaren erausketa ez da beharrezkoa izaten, gainera, ez da konponbide egokia. Izan ere, ez du azazkala matritetik zuzentzen, hau da, azazkala sortzen den lekutik. Gainera, arazoa bederatzi hilabete luzatzen da, denbora hori behar baitu azazkalak berriro ateratzeko.

AHOLKUA



Ainara Etxeberria
Hankara podologia



LOGOS
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierri egindako
sukaldeak

BASOAN NORBATT DAGO EZKUTATURIK...

...ZURI BEGIRA DAUDE...

...ZU NAHI ZAITUZTE...

...HARRAPATUTA ZAUDE.

Takti-k, Idiazabalen ireki berri den paint-ball zelaia duzue. Takti-k eta paint-balla, gogoan izan beharko dituzuen hitzak. Paint-balla zer den ez dakizuela? Lagun bati despedida egitekoak zaretela? Famili edo enpresa bazkari bati txispa piska bat jarri nahi diozuela?

Etorri Takti-kra!

Goi-mailako materialak eta instalazioak prestatu dizkizuegu, aldagela eta guzti. Kalitate onena, inguru paregabean. Gainera, zuen neurrira egokitzen ditugu saioak: adinaren arabera, esperientziaren arabera, denbora eta jokalarikopuruaren arabera.

Etorri Takti-kra... eta bizi zuen pelikula!

ESKAINTZA

Irailean eta Urrian ordubeteko saioak - 12 eurotan. /// Irailean eta Urrian bi orduko saioak - 15 eurotan! Materiala (100 pintura bola), begiraleen laguntza eta aseguruua barne.
/// 12 pertsonatik gorako taldeei bi sarrera oparituko zaizkie!
Erreserbak egiteko deitu: 665 701 403.

Bisitatu gure web orria, www.takti-k.com: argazkiak, informazioa, jolasak...

TAKTI-K





Aimar Maiz Goierriko

Hitzako zuzendaria:

“Jendeak berehala egin du Hitza berea”

Urrian urte bete egiten du Goierriko Hitza egunkariak bere sorreratik. Berri asko izan dira, denbora honetan, Hitzak goierritarrei eman dizkienak eta

gainera, egunero euskara hutsean egindako egunkaria eskaini die. Hori dela, Aimar Maiz zuzendariari urtearen balantzea egiteko eskatu diogu.

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Altzariak neurria

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea



Osinalde s.l.

DESGUAZEA

Tel.: 943 16 22 07 car.osinalde@terra.es
943 88 70 48 Igara industrialdea, z/g
Faxe: 943 88 28 01 ORMAIZTEGI

Azkar igaro al da urtebe- te?

Bai, oso azkar pasa da. Gainera, kontuan izanik, gu beti hurrengo egunari begira egoten garela, asteak azkar joaten zaizkigu eta urtea ere halaxe joan da. Iazko urriaren 5ean hasi ginen egunkaria kaleratzen eta konturatzerako pasa da denbora.

Nolako balorazioa egingo zenuke urteari buruz?

Gu oso gustura gaude urtea nola joan den ikusita, balorazio positiboa egiten dugu. Oinarriak jartzea zen gure asmoa, hau da, Hitza ezagutzera ematea eta zabaltzea. Helburu hori lortzeko balio izan du urte honek. Etxeetan jaso dute Hitza eta orokorrean gustura gainera. Beraz, helburu nagusia betetzat jotzen dugu.

Herritarren erantzuna nolakoa izan da?

Entzundakoaren arabera, oso gustura hartu dute herritarrek Hitza. Jendeak gustura irakurtzen du. Batetik, gertuko informazioa ematen duelako eta bestetik, lehen Goierritarra aldizkariak ematen zuen herriz herriko funtzio hori zabalago betetzen duelako.

Jendea egunero Hitza irakurtzera ohitzea eta zer datorrenaren zain egotea ona da. Eta hori da gertatu dena. Beraz, erantzuna oso ona izan da eta jendea Goierriin beste komunikabide bat egotera ohitu da. Jada jendearen artean ezaguna eta egunerokoa da. Hasi-eran gu jendearengana joaten ginen eta oraindik batzuk ez gintuzten ezagutzen. Orain ordea, harreman polit bat sortu da eta pozik egoteko modukoa da.

**GOIERRIKO HITZAren
1. URTEURRENEKO FESTA**

**URRIAREN 8AN
BEASAINGO PLAZA
AZPIAN**

**16:30ean
TXILIBUTXOFen
Tailerra**

BERTSOLARIAK

**19:00etan
AURTZAKA
DANTZA TALDEA
eta
ZUHAITZAREN SOINUA
Txalaparta**

**22:00etan
FREE ZEN
eta
HARTU ARTE**

Loguntzoileak:

Beasaingo Udala

Goierritarra

Beasaingo

Gastetxea

Jendeak Hitza kontuan hartzen al du?

Bai. Konturatu gara orain aspektu askotan beste komunikabide bat gehiago gara. Beste komunikabideetara bidaltzen dituzten gauzak gurera ere bidaltzen dituzte eta nabaritzen da. Leku guztietara ez gara iritsi oraindik, baina nik uste pixkanaka aurrera goazela.

Eta erakundeen aldetik nolako erantzuna jaso duzue?

Hitza egunkariak aurrera egiteko behar-beharrezkoa

duen dirulaguntza eskatu genuen. Oraingoz, udaletxe guztiek ez digute erantzun eta eskatu genuen diru guztia ez digute eman. Beste udalekin orain ari gara lanean eta ea aurtengo balantzea xterako zerbait egiten dugun.

Argi eduki behar da dirulaguntza, proiektuak aurrera egiteko beharrezkoa dela. Ez da kapritxo ez eskatutako dirua, baizik eta beharrak eskatutakoa. Gainera, gure ustez, administrazio publikoak euskarazko ko-

munikabide baten proiektu bat lagundu egin beharko luke.

Harpidetza kanpaina bat egin duzue. Ongi joan al da kanpaina?

Harpidetza kanpaina maiztzean hasi genuen eta ekainera arte iraun zuen. Eta egia esan, datu nahiko positiboak lortu ditugu. Izan ere, Hitza jasotzen dutenen %60ak ordaindu du harpidetza.

Horrek adierazten digu jendeak ikusten duela behar hori eta sentitzen duela

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN



Goierriko Hitzako lan taldea bilera batean.

Hitza ere lagundu behar dela. Izan ere, Hitza, beste edozein produktu bezala, etxean jasotzen da eta euskaraz izateak ez du esan nahi debalde izan behar duenik. Goierriar askok eman du bere laguntza, eta Hitzarentzako ezinbesteko babesa eta laguntza da hori. Horregatik, eskerrak eman beharrean gaude.

Jendearen egunerokotasunean sartzea lortu al duzue?

Jendea ohitu da Hitza jasotzera. Nik hasiera batetik sumatu nuen harrera, jendeak berehala egin zuen Hitza berea. Egunero postontzira jaitsi eta Hitza irakurtzeko desio hori izan du

jendeak. Uda honetan, abuztuan jai izan dugunez, jende askok galdetzen ziguen ea noiz hasi behar genuen berriro Hitza ateratzen. Gainera, aipatu behar da zorion agurren tarteak arrakasta izan duela herritarren artean.

Lehenengo urterako jarritako helburuak lortu al dituzue?

Bai. Nik uste dut lehenengo urterako ezin dela gehiegi eskatu helburuei dagokienez. Izan ere, kontuan izan behar dira proiektu berri batek dituen zailtasunak. Hasieran ez dakizu zer nolako harrera izango duen, merkatua nola dagoen... Oinarri batzuk sendotzea

zen helburu nagusia eta hori lortu dugu.

Aurrera begira zer asmo ditu Hitzak?

Hitza egonkortzeko lana egin beharko dugu, herritarrek naturaltasun osoz hartzeko. Hala ere, euskarazko komunikabideak indartzea izango du helburu bat. Euskal kultura eta bertako bizimodua sustatzea beste bat.

Eta azkenik, euskara komunikatzeko tresna sendo bat izatea.

Zein izan da orain arteko zailtasunik handiena?

Zailtasunik handiena proiektu berri bat zela izan da. Baina aipatu behar da, Goierriarra aldizkariak, Zintzo Mintzok eta Bertako Hedabideak S.L.-k aurretik izugarritzko lana egin zutela. Laguntza eta indar handia eman digute hiru lan talde hauek eta beraiei esker, hasiera ere ez zen hutsetik hastea bezalakoa izan.

Horretaz gain, Hitzako lan taldea ere berria ginen eta ez genekien nola joango zen, kezka genituen. Baina ez dugu traba handiegirik izan.

Eta pozik handiena?

Poz handia izan da herritarrek, guk pentsatzen genuen bezala, Hitza bezalako proiektu bat beharrezko ikusten zutela jakitea. Bestalde, Hitzak urte bat egin du kalean eta sendotzen ari da. Informazio iturriak handitzen ari dira eta kalitatea ere gorantz doa. Beraz, hori guztia ikustea izan da pozik handiena.

Poz handia izan da herritarrek, guk pentsatzen genuen bezala, Hitza bezalako proiektu bat beharrezko ikusten zutela jakitea.

**GRÁFICAS
EGUZKI**
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
T/F 943 88 94 82

**KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLETAN**

© 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5
BEASAIN

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × 24 orduko asistentzia
- × e.a.


“Lan talde jatorra daukagu, jende gaztea eta gogotsua da”

Espero zenuena aurkitu al duzu Hitzan?

Bai. Niri proiektu hau aurkeztu zidaten unean, niretzako egindako jantzi bat zela pentsatu nuen. Betidanik horrelako lan batean aritzea gustatuko litzaidakeela pentsatzen nuen eta momentua iritsi zen. Lan hau nahi nuen, alde bate-tik, Goierrin bertan dagoe-lako eta ingurua gutxi go-ra-behera ezagutzen nuela-ko; bestetik, euskal komu-nikabide bat delako, beraz, nire ama hizkuntzan lan egingo nuelako; eta azke-nik, eskualdea eta bertan dagoen mugimendua ho-beto ezagutzen lagunduko zidalako. Horregatik, espe-ro nuena aurkitu dut he-men.

Zer eskatzen du zuretzat zuzendariaren lanak?

Alde batetik, lan taldea ko-ordinatzea da nire lana. Lan talde jatorra daukagu, jende gaztea eta gogotsua da, eta horiek koordinatzea dut helburu. Bestalde, en-presako mugimenduak ere ezagutu behar ditut eta



egunkariaren ardura era-man behar dut. Egunero Hitza ahalik eta orekatuena izatea lortu behar dut eta lan taldea bide horretatik eramatea ere bai.

Lehen lan ezberdin batean aritzen zinen. Zerbait ikasi al duzu Hitzan?

Lanbide guztietan ikasten da zerbait. Ni zerrategi ba-tean hasi nintzen lanean, gero, automobilen mun-duan egin dut lan eta bes-te hainbat lekutan ere bai, eta denetan ikasi dut zer-bait. Hitzan noski ikasi du-dala eta oraindik gehiago ikasiko dut. Izan ere, azke-nean, nik desio nuen lana eman dit eta hemen asko

errendituko dut.

Zein dira lan honen alde onak eta abantailak?

Lan honen alde ona etxean gaudela eta horrek segurta-suna ematen duela da, nire ustez. Abantailak berriz, poztasun pertsonal bezala, lanpostua gustukoa duda-la. Hala ere, aipatu behar dut jasotzen duguna eta ematen duguna ere nahiko orekatuta daudela.

Goierriko errealitatea beste era batera ezagu-tzeko lagunduko du lana honek ezta?

Hori da. Askotan pentsa-tzen dugu Goierriko balore hauek dituela eta filosofia edo jarrera zehatzak ditue-

la, baina, errealitatea beste-lakoa da. Hutsuneak ikus-ten dira hainbat arlotan. Euskarari dagokionez, es-kualdetik irten eta ematen du Goierri euskararen erreinua dela eta ez da ho-rrela.

Eta desabantailarik ba al du lan honek?

Nik ez nuke esango desa-bantailarik duenik. Noski, egia da batzuetan lan ordu asko izaten ditugula eta la-runbatetan ere lana egin behar izaten dugula, baina horiek gainerako lantokie-tan ere gertatzen dira. Jaso-takoak guzti hori konpen-satzen du eta ez nuke desa-bantailarik aipatuko.

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

e txekin

www.zugaztib.net

zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

T
O
L
A
R
E

URBITARTE



SAGARDOTEGIA

☎ 943 18 01 19

ATAUN



Sasietaren kanpaina berria

Birziklatzeak badu saria”
kanpaina jarri dute martxan
Sasietako arduradunek.
Birziklatzen duten herritarrei,

eskerra azaltzeko, oparitxo eta
zozketa batzuk jarri dituzte. Horretaz
gain, kontzientziatzeko bulego eta
jolasak ere kalera aterako dituzte.

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

*Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak*

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.
BEASAIN

Aseguru konreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea

Tfnoa.: 943 88 86 20

Tfno. mugikorra: 609 49 14 41

Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO

Urtero egiten du Sasieta Mankomunitateak birziklatzeko kanpaina bat jendeak horretan jarraitzeko eta bultzada bat ematen laguntzeko. Aurtengoan, *Birziklatzeak badu saria* lelopean jarri dute kanpaina berria Sasieta arduradunek. "Kanpaina honen helburua birziklapena egiten duten herritarrek birziklatzen jarraitzea eta beste batzuk horretara bultzatzea da", agertu du Enrike Enparantza Sasieta teknikiariak.

"Birziklatzea ingurumenarentzat onuragarria dela badakigu", adierazi dute Sasieta kideek. Gainera, bilketa sistema borondatezkoa dela aipatu dute: "Herritarren kontzientzian oinarritzen den sistema da". Beraien ustetan, herritar gehienek hartzen dute parte gaiak bilketan eta zoriundu egin behar dituztela esan dute. Izan ere, birziklapenaren datuak ikusita, "hobere-netarikoak gara", esan dute. Nahiz eta herritarren artean denek ez dioten birziklatzeari erantzuten, egiten dutenei sari bat eman nahi die eta horregatik antolatu dute kanpaina berri hau.

Sariak birziklatzeagatik

Sasieta hezitzaileak jarri ditu zabor puntuetan eta zaborra jaistera doan herritarra berarekin aurkitzen baldin bada eta zaborra sailkatuta baldin badauka, sari txiki bat jasoko du.



Sasieta Mankomunitateko arduradunak kanpainaren aurkezpen egunean: Iñaki Erauskin gerentea, Peio Garaialde lehendakaria eta Enrike Enparantza teknikaria. Arg.: Goierriko Hitza

Hezitzaileak Goierriko herrietan zehar ibiliko dira egun desberdinetan. 20:00etatik 22:00etara ibiliko dira zabor puntuen inguruetan eta herrian zehar mugitu egingo dira. Sari honen helburua honakoa da Sasieta kideek adierazi dutenez: "Kontzientziazatutako

herritarrei gure eskertza erakustea".

Horregatik, saritxo horretaz gain, hezitzailearekin egoten den herritarrek beste zozketa batean parte hartzeko aukera izango du. Astean behin hotel batean bi egun igarotzeko aukera lortzen da, baita gastuetarako beste 30 euro ere.

Bulegoa kalean
Hezitzailea zabor puntuetan ibiltzeaz gainera, aurretik

Helburua birziklapena egiten duten herritarrek birziklatzen jarraitzea eta beste batzuk horretara bultzatzea da.



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitaratekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04

beste lan bat izango dute. Izan ere, mankomunitateko sei herri handienetan etxola edo karpa antzekoak jarriko dituzte.

Etxola horiek, 17:00etatik 19:30era egongo dira jarrita asteen zehar, eta bertan kontzientziatzio kanpaina egingo da. Horretarako, zailantzak argitzeaz gain, birziklapenari buruzko ezagupe-nak aztertuko dituzte, eta trukean, herritarri opari-to bat emango die.

Jostailuak zaborrarekin

Birziklatzea ez da pertsona nagusien lana bakarrik. Hurrek ere birziklatzea zer den jakin behar dute eta gainera, zaborra beste gauza batzuetarako ere erabil daitekeela ikastea nahi dute. Horregatik, hurrek ere horretan parte hartu dezaten beraiei egokitutako modu batean, herrietan jarriko diren etxolen ondoan haurrentzako karpa bat jarriko dute jostailuak egiteko.

"Karpa horietan bi hezitzaile egongo dira arraultza kaxekin, ur botilekin eta horrelako materialekin eta hurrei jostailuak egiten erakutsiko die. Era horretara, umeei ontziak eta zaborretara botatzen ditugun elementuak erabiltzen jakingo dute", dio Sasietak.

Jostailu horiek egiteko 20 minutu beharko dituzte hurrek eta ondoren, egingako lana etxera eraman ahal izango dute.



Hezitzailea zure bila dabil

- ✓ Urriak 3- Beasain
- ✓ Urriak 4- Beasain
- ✓ Urriak 5- Beasain
- ✓ Urriak 6- Beasain
- ✓ Urriak 7- Beasain
- ✓ Urriak 10- Idiazabal
- ✓ Urriak 11- Idiazabal
- ✓ Urriak 13- Segura
- ✓ Urriak 14- Zegama
- ✓ Urriak 17- Lazkao
- ✓ Urriak 18- Lazkao
- ✓ Urriak 19- Lazkao
- ✓ Urriak 20- Lazkao
- ✓ Urriak 21- Ataun
- ✓ Urriak 24- Ordizia
- ✓ Urriak 25- Ordizia
- ✓ Urriak 26- Ordizia

- ✓ Urriak 27- Ordizia
- ✓ Urriak 28- Ordizia
- ✓ Urriak 31- Zaldibia
- ✓ Azaroak 2- Itsasondo
- ✓ Azaroak 3- Legorreta
- ✓ Azaroak 4- Arama-Altza-ga
- ✓ Azaroak 17- Gabiria-Ormaiztegi
- ✓ Azaroak 18- Ormaiztegi-Zumarraga
- ✓ Azaroak 28- Ezkio
- ✓ Azaroak 29- Zerain-Mutilla
- ✓ Azaroak 30- Olaberria

Arreta bulegoa kalean

Beasain: Irailaren 30etik urriaren 16ra bitartean, Na-

farroa etorbidean. Haurrentzat tailerra urriaren 15ean. **Lazkao:** Urriaren 17tik urriaren 23ra Udaletxeko enparantzan. Haurrentzako tailerra urriaren 22an izango da.

Ordizia: Urriaren 24tik azaroaren 6ra, Udaletxeko enparantzan. Hurrei zuzendutako tailerra urriaren 29an egingo da.

Bulegoaren ordutegia: astelehenik ostiralera 17:00etik 19:30era. Larunbatean 11:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era eta igandean 11:30etik 14:00etara izango da.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA



ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**




Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

gandean hasiko da Bertsolari Txapelketa Nagusia eta abenduaren 18an izango da finala. Aurtengo txapelketan bost goierritar izango dira. Alde batetik, Aitor Sarriegi, Ekaitz Goikoetxea eta Iker Zubeldia bertsolariak. Bestalde, Inazio Usarralde eta Saroi Jauregi gai jartzaile lanetan arituko dira. Urriaren 15ean azken-laurdenak jokatu dira Idiazabalgo pilotalekuan. Bertan, hainbat bertsolariren artean, Goikoetxea eta Zubeldia goierritarrak izango dira. Sarriegi aldiz, Arrasaten egingo den ekitaldian izango da urriaren 23an.

bertsolari
txapelketa
nagusia

05



ZUZENKI
A HOLKULARITZA



Abokatuak
Enpresen asesoria
eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta: zuzenki@euskalnet.net
Hirigoien, 7 LAZKAO

e txekin

www.txekin.net

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gi-
da-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Aitor Sarriegi

Nola ari zara prestatzen txapelketarako?

Urtean zehar asteen behin beste bertsolari batzuekin biltzen naiz, Bixente Gorostidirekin batez ere. Orain, txapelketa gertuago dagoela eta, asteen bi edo hirutan biltzen saiatzen gara. Bestalde, asko irakurri, errima zerrenda aberastu...

Nolakoak espero duzu txapelketa?

Txapelketa ona espero dut. Gipuzkoakoa ona izan zen hasieratik hasita, beraz, Euskal Herriko Txapelketan maila ona egotea espero dut. Gazteok oso ongi prestatuta joango gara, baina beste bertsolari batzuek jende aurrean ohituta dauden bezala, guk hori dugu desabantaila.

Zer ematen dio txapelketak bertsolariari?

Motibazioa, helburua eta jomuga. Sarriago biltzen, gehiago irakurtzen eta presta-

tzen saiatzen gara. Horretaz gain, finalera iritsiz gero, plazetan kantatzeko aukera bermatzen da eta erakargarria egiten da.

Zer sentitzen duzu txapelketan?

Urduritasuna. Txapelketa lau urteko lanaren erakusketa da eta edozein akatsek kanpoan utz zaitzake.

Zer bertso saio mota duzu nahiago?

Edozein tokitan kantatzeko aukera izatea gustatuko litzaidake. Tokian tokiko bertsoak egitea da aberasgarria niretzat.

Zein gai mota duzu gustukoena?

Ikusleak pentsatzen du bertsolari honek seriotik helduko dio gaiari eta beste onak umore puntutik. Niregandik gaiak serio edo triste hartzea espero da edozein gai dela ere.

Zein ariketa nahiago?

Nik txikitatik bakarkakoan murgildu naiz gehiago eta horregatik hori dut nahiago.

Puntuari erantzutea ere gustatzen zait, nahiz eta lehen zaila egiten zitzaidan.

Nolakoak dira Aitor eta Iker?


Aitor bertsolari ikasia da, sakona eta oso azkarra. Edozein gai dela ere, bertso oso onak botatzeko kapazitatea dauka. Sakontasuna bilatzen du, ni bezala, nire estilotik hurbilago dago. Iker ordea, ezberdina da, haustailea. Umore handia jartzen du eta gai triseei ere umore puntu bat sartzeko zirrikitua bilatzen die. Ikerrek guri falta zaiguna dauka. Horregatik, osagarriak garelako esango nuke.

Txapela irabazteko faborito bat?

Andoni Egaña izango da faboritoa.

Zortzi finalisten kiniela egingo al zenuke?

Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Igor Elortza, Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Arkaitz Goikoetxea eta ni.



Iker Zubeldia

Nola ari zara prestatzen txapelketarako?

Ez naiz bereziki prestatzen ari. Dena den, txapelketara doan bertsolaria beti ari da prestatzen, begi ezberdinekin ikusi eta irakurtzen du. Buruari buelta gehiago ematen zaizkio garai honetan. Tarteka kantatzeko geratzen naiz Iñaki Apalategi-ekin.

Nolakoak espero duzu txapelketa?

Lehiatua. Maila ona eman dezakeen jende asko dago eta lehia ikusgarria izango dela uste dut.

Zer ematen dio txapelketak bertsolariari?

Txapelketa ona egiten badu plazan kantatzeko aukera gehiago izan ditzake. Eta norbere burua gehiago estutu arazten du, ondorioz bertsolari bezala garatuz.

Zer sentitzen duzu txapelketan?

Urduritasuna eta nekea.

Zer bertso saio mota duzu nahiago?

Gustuko lagunartean librean aritzea gustatzen zait. Tarteka gaia edo bidea ireki-ko duen norbait ere behar izaten da ordea.

Zein gai mota duzu gustukoena?

Ez dut bereziki gustuko gairik, bertsoak onak badira edozein gai da ona.

Zein ariketa nahiago? (bakarkakoa, kartzelakoa...)

Bakarkakoa eta puntuak erantzutea gustatzen zaizkit, baina normalean 8ko nagusian egiten dut saiorik erregularrena.

Nolako bertsolariak dira Ekaitz eta Iker?

Ekaitz txapelketarako oso bertsolari ego-
kia da, bere maila jakin batetik behera

aritzen ez dena. Berekin kantatu behar duenak badaki hortik gora egin beharko duela, nekez huts egiten du. Iker aldiz, bertsolari herrikoiagoa, da, publikoarekin harremana errez lortzen duena, eta askok txapelketarako bertsolaria ez dela badiote ere, parean jotzen badu final laurdene-
tako sorpresetako bat izan daitekeela uste dut.

Txapela irabazteko faborito bat?

Duen onena ematen badu berriz ere Andoni Egaña irabaziko duela uste dut.

Zortzi finalistek kiniela egingo al zenuke?

Ez zait lan hauetan sartzea gustatzen, baina tira: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jon Maia, Amets Arzallus, Sustrai Colina eta Iñaki Gurrutxaga.



Nola ari zara prestatzen txapelketarako?

Etxean bakarkako ariketa batzuk egiten ditut eta gainontzean, beti bezala. Asteartero Goierriko bertsolari zaharrek elkartzen naiz soltura hori mantentzeko.

Nolakoak espero duzu txapelketa?

Sorpresaren bat egongo dela uste dut, hori nahi nuke behintzat. Ez nuke nahi Andoni Egaña berriz ere txapela irabaztea, baina, merezi baldin badu irabaz dezala.

Zer ematen dio txapelketak bertsolariari?

Niri disgustoak gehiena. Txapelketaren ondoren pare bat saio egiteko aukera sortzen da eta horixe da poz bakarra.

Zer sentitzen duzu txapelketan?

Urduri beti egoten naiz, batzutan oso urduri eta besteetan urduri. Batzutan, ondo

ari baldin bazara, harrotu egiten zara eta urduritasuna gutxitu egiten da. Errenka hasiz gero ordea, oso urduri jartzen naiz.

Zer bertso saio mota duzu nahiago?

Bat esateko afarietako esango dut, baina hori jendearen arabera izaten da. Batzutan afari batek ez du funtzionatzen eta jaialdi batek bai. Jendeak entzuteko go-
goa daukan edozein tokitan kantatuko nuke. Gure lana erdia izaten da eta beste erdia publikoarena.

Zein gai mota duzu gustukoena?

Hori ez dago esaterik. Askotan xelebre-
na iruditzen zaizuna egiten duzu ondoen eta beste bat ongi ikusten duzuna ez duzu horren polita egiten. Gai arinak nahia-
go ditut baina ezin da esan.

Zein ariketa nahiago?

Ofiziotakoa dut gustukoen eta bakarka-
koari beldur gehien.

Nolakoak dira Ekaitz eta Aitor?

Biek beti lan ona egiten dute. Aitor fina-
lurrekoetara iritsita dago eta nik uste fi-
nalean egotea merezi zuela aurreko txapelketan. Ekaitz perfektioa da. Teknika izugarria dauka eta hiztegia ere bai eta horretaz baliatzen da. Normalean, jakin egiten da Ekaitzek nondik joko duen bai-
na Aitorrek ez, sorpresak ematen ditu.

Txapela irabazteko faborito bat?

Uste dut Aitor Mendiluzek eta Maialen Lujanbiok dauzkatala posibilitateak txapela janzteko. Gustatu ordea, Amets Arzallusek janztea gustatuko litzaidake.

Zortzi finalistek kiniela egingo al zenuke?

Igor Elortza, Jon Maia, Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Jexux Mari Irazu, Amets Arzallus eta Ekaitz Goikoetxea.

Gai jartzaileak, bertsolari txapelketaren itzalean

Ezezaguna da gai jartzaileen lana. Aurten-go txapelketarako zortzi kide elkartu dira eta lan asko egiteaz gain, giro oso ona eduki dutela aitortu digute Inazio Usarralde eta Saroi Jauregik. Horregatik, gai jartzaileen lana ezagutu asmoz, Txapelketa Nagusiko bi gai jartzaile goierritarrek berrikerian aritu gara.

Zein da txapelketan gai jartzailearen lana?

Saroi Jauregi: Bertsolarietako saioetan izango dituzten gai guztiak eta puntu guztiak jartzea da gure lana. Aurten nire kasuan, saioak aurkeztea ere izango da.

Inazio Usarralde: Txapelketa osoaren antolakuntza eta saioen lekuak zehaztearekin batera, aurrera hasten den lana da gurea. Guk inoiz baino lehenago hasten dugu txapelketa, maiatzean elkartu ginen aurreneko aldiz zortzi gai jartzaileok eta ordutik, astero-astero elkartzen gara. Ardura handikoa da gurea. Izan ere, saioa nondik doan eta bertsolariak egiten duen bertsoa nolakoa den, kanpoko faktoreei botatzen zaie errua eta gaiarekin sartzen dira askotan.

Jauregi: Askotan gertatu izan zaigu gai batekin zailtasunak edukitzea eta saioa oso ongi ateratzea. Aldiz, beste batzutan gai ona iruditzen zaigunak ez du horren ondo funtzionatzen.

Gehiago irakurri edo bes-



321 gai

161 gai erredaktatu jarri behar izaten dituzte. Horietatik 124 binaka aritzekoak dira eta 37 bakarka aritzekoak.

Horretaz gain, hasierako puntuetarako ere beste 160 gai jarri behar dituzte. Asko dira eta oreka bilatzea ez dela erraza aipatu dute.

te zerbait berezia egiten al duzue txapelketa prestatzen hasi aurretik?

Jauregi: Ez dut uste aparteko lanik egiten dugunik. Hori bai, irakurtzen eta entzuten dugunari arreta gehiago jartzen diogu eta beste batean garrantzirik ematen ez diogun zerbaiti eman egiten diogu, eta gainera apuntatu egiten dugu.

Usarralde: Aurreneko bileran eguna oso gertu ikusi arte nik ez dut ezer egiten. Presioa behar izaten dugu hasteko. Gainera, taldeko

lana denez, gai gutxi eraman badituzu ondokoak presioa sartzen dizu.

Gaiak aukeratzeko orduan zertan oinarritzen zarete?

Usarralde: 1985. urtean hasi Bertsozale Elkartea txapelketa antolatzen. Beraz, Txapelketa Nagusirako edo Gipuzkoako Txapelketako badaude pautak batzuk, egiten eginez, ohitura bihurtu direnak. Adibidez, zortziko handian hasten direnez, gai arrunt eta zabalak izaten dira; zortziko txikiak aldiz,

ironia eta barrea eragiteko fama dauka; hamarreko txikiak ziri bertsoa izateko... Baina hori teoria hutsa da.

Jauregi: Esan izan da teoria hankaz gora jartzeko garaia badela. Komentarioak egon ziren ea zergatik izan behar zuten zortziko handiko bertsoak serioak eta txikiak umorezkoak. Baina, egia esan, gai jartzaile taldeari lana egiteko modua asko errazten digu gaiak sailkatu ahal izateak. Hasieran 160 gai ditugu eta horiek sailkatu beharra dauzkagu nola edo hala. Batzuk finalerako uzten ditugu, besteak finalurrekoetarako, exijentzi mailaren arabera...

Zortziko handirako gai



kutxa

gizarte ekintza

batzuk jartzen ditugu, zortziko txikirako beste batzuk, bakarkako saiorako beste batzuk eta kartzelako saiorako beste batzuk. Horrela sailkatzen ditugu gaiak eta faseak ere bai. Azken laurdenetarako batzuk, finalurrekoetarako beste batzuk eta finalerako besteak. Eta horren arabera saioak antolatzen ditugu. Adibidez, Lekunberriko saiorako zortziko handirako hiru gai hauek, txikirako hauek eta horrela finalera arte.

Aipatu behar da, saioak gerturatzeko ari direla dudak sortzen joaten direla. Ez dakit gai honek emango duen, bertsolari batek besteak baino errazago eduki dezake... Horrelakoetan, gai on bat sortzen bada aldatu egiten dugu baina bestela, ez dugu zalantzarik planteatu ere egiten. Aurretik lan asko eskatzen du, izan ere, gaiak apartatzen joateko gaiak behar izaten dira.

Txapelketa prestatzerakoan zer egiten duzue bakarka eta zer taldean?

Usarralde: Aurrena etxeko lanak egiten ditugu banaka. Norberak prestatutako gaiak eramaten ditu bilerara eta taldeari irakurtzen dizkio. Gai batzuk osatu, besteak baztertu eta beste batzuei planteamendua aldatzen diegu denon artean. Saioak urruti daudenean gai gehienak onak iruditzen zaizkigu eta gerturatzeko doazen heinean berriz, zalantzak sortzen dira.

Jauregi: Lana bakarka hasten da baina taldean bukatzen da. Gertatu izan da norbaitek gai ekartzea baina berari ere ez gustatzea nola erredaktatua dagoen. Orduan, beste batek bileran



Saroi Jauregi Aiestaran.
Zaldibian jaio zen orain
27 urte. Euskal
Filologian lizentziatua
da eta bizkuntz
zuzentzaile gisa egiten
du lan Elbuyar
Fundazioan. Bigarren
aldia izango du
Txapelketa Nagusian.

planteamendua aldatu eta ongi gelditzen da.

Erredakzioak ere lana emango du ezta? Bi irakurketa ez edukitzeko...

Jauregi: Bai horrek lan handia ematen digu. Saiatzeko gara azalpen luzeak ez ematen, izan ere, bertsolariak kontzentratua egon behar du eta ezin izaten ditu datu asko jaso. Guk abiapuntua eman behar dugu eta bertsolaria izan behar du zerbait esaten duena.

Usarralde: Gai bakoitzarekin izaten dugu planteamenduaren zalantza: zenbateraino esan behar dugun eta bertsolariak eta entzuleak ulertzekoa izan behar du.

Gai batek espero zenute-

na ez ematea askotan gertatzen al da?

Jauregi: Normalean jakiten dugu zer emango duen. Gai bakoitza hartu eta talde guztiaren artean zer eman dezakeen aztertzen dugu. A bertsolariak zer esan dezakeen eta B bertsolariak zer erantzun dezakeen pentsatzen dugu. Gaiak ez ditugu edonola jartzen.

Usarralde: Gai bat baliagarria den jakiteko honako ariketa egiten dugu gure artean: bi kideri horri buruz zer esango luketen galdeztatzen diegu. Zer esan ez badakite, gaia baztertu egiten dugu. Izan ere, bertsolariak denbora gutxiagoan bertsoa bota behar du eta gainera erimak kontuan hartu behar ditu. Beraz, gai hori ez da baliagarria izango.

Gaiak errepikatzeko beldurra izaten al duzue?

Usarralde: Beldurra beti egoten da baina argi dago batzuk ezin direla ekidin. Norberak bizimoduan zehar zer egiten duen ikusita, normala da zerbait errepikatzea. Izan ere, bizimodu horretatik ateratzen dira gaiak. Maitasuna, lana eta horrelako gaiak beti azalduko dira.

Jauregi: Literaturan eta horrelakoetan ere berdina gertatzen da. Dena esanda dago baina esateko modua aldatzen da.

Txapelketako saioetako gaien artean ezberdintasunik ba al dago?

Usarralde: Gaiak bilketa egiten dugu lehenengo eta onenak finalerako uzten ditugu.

Jauregi: Gai onenak finale-rako gordetzeko irizpidea ez da onena izatea bakarrik, exijentzi maila ere bai. Az-



Inazio Usarralde Arantzadi. 38 urte ditu eta, jaiotzez Usurbildarra bada ere, Lazkaon bizi da. Euskal filologiako ikasketak ditu. Gai jartzaile taldean urte askoko esperientzia pilatu du.

ken finean, azken laurdenetatik finalurrekoetara pasatzen direnak maila onena eman dutenak izaten dira, beraz, gehiago exijitu dezakegu. Eta finalurrekoetatik finalera pasatzen direnekin berdin.

Zer da gain on bat eta zein ez?

Jauregi: Horretan ez gara jartzen ados gu ez eta bertsolariak ere. Nire ustez, definizioz, gai txar bat bertsolari bati esan eta zer esanik ematen ez diena da. Egia da hala ere, bertsolari batzuk zeresana ateratzeko abilitate gehiago daukatela.

Usarralde: Irizpideak aldatu egiten dira egunetik egunera. Gaur gai bat ona iruditzen zaigu eta bihar ez.

biok

zerbitzuak

kudeaketa

fiskala

kontablea

merkatala

laborala

Tel 943 88 44 00
 Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
 Ordizia Goierri, 12

PSIKOLOGI KLINIKOA


Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**

KULTUR HAMABOSTALDIA

urriaren 10etik 21era
ordizia



Urriak 10 (astelehena):
Griot ikus-entzunezkoa.

Jon Arretxeren eskutik.

- Barrena Kultur Etxean, 19:00etan.



Urriak 12 (asteazkena):
Bertsoen Agerpide Interkulturala kale-animazioa.

Bertsozale Elkartearen kale-antzerkia.

- Herrigunean zehar, 13:00etan.



Urriak 14 (ostirala):
Ilhargi-min kontzertua.


Maddi Oihenart abeslari Zuberotararen eta Josetxo Goia-Arriben saxo jole eta konpositorearen eskutik.

- D'elikatuz gunean, 22:00etan.



Urriak 17 (astelehena):
Nora hoa neska,
Txirene taldearen antzezlan komikoa.

- Barrena Kultur Etxean, 19:00etan.



Urriak 19 (asteazkena):
Pello Añorgaren ipuin-kontaketa.

- Barrena Kultur Etxean, 17:00etan, 5 urtetik gorako haurrentzat.



Urriak 21 (ostirala):
Kantu Jira eta Kantu Afaria.

- Kantu Jira, herrigunean, 19:30etan Udaletxe parean hasita.
- Kantu Afaria, Plaza Nagusian, 20:30etan.

Babesleak:



Laguntzaileak:



Beasain

Goieniz zinekluba

2005eko urria-abendua. XXII. zikloa.

Urriak 6: *2046*, Wong Kar-waik zuzendutako filma. Txina, Frantzia eta Alemania, 2004.

Urriak 13: *Omagh*, Peter Travis-ek zuzenduriko lana. Britainia Handia eta Irlanda, 2004.

Urriak 27: *Un toque de canela*, Tassos Boulmetis-en lana. Grezia eta Turkia, 2003.

Azaroak 10: *Como una imagen*, Agnès Jaoui-k zuzendutako pelikula. Frantzia, 2004.

Azaroak 24: *Salvador Allende*, Patricio Guzmán-ek zuzendua. Frantzia, Belgika, Espainia eta Alemania, 2004.

Abenduak 1: *Hierro 3*, Kim Ki-duk-en lana, Hego Korea eta Japonia, 2004.

Abenduak 15: *Silver city*, John Sayles zuzendariaren lana. Ameriketako Estatu Batuak, 2004.

Abenduak 22 (film kuttuna): *Las tortugas también vuelan*, Bahaman Ghobadik zuzendua. Iran eta Irak, 2004.

Ordizia

VIII. Artisaualdia

Aurtengoan ere, zortzigarren aldiz, Artisaualdia antolatuko dute Gabiltza artisauen elkarteak eta Ordiziako Udalak. Urriaren 7, 8 eta 9an izango da Gipuzkoako artisauen lanak ikusteko eta erosteko aukera Ordiziako Majori kiroldegian.

Asteburuko topaketa honen helburua Gipuzkoako artisautza bultzatzea da, aldi berean artisauen lana ikusiz. Ostiralean inauguratuko da artisaualdia eta honakoa izango da bertara joateko ordutegia: 10:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30era.

Artisaualdi honetan 40 artisauk hartuko dute parte eta era guztietako lanak egiten dituzte: keramika, kristala, bitxiak, egurrezko jostailuak, larrua, etab. Horretaz gain, hainbat berrikuntza ere izango dira aurtengoan. Izan ere, bi erakustaldi egongo dira. Bata Koro Albisuren izango da eta bestea Albaola Elkartearena. Urtero artisauen bat omentzen da eta oraingoan Albaola eta Ontziola Elkarteari tokatzen zaio.

Aipatzekoa da sarreraren truke zozketa baten barruan sartzen zarela eta beste hainbat zozketa ere izango direla.



autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako mintegiak

Zer egin zabor-postatik libratzeko

Zabor-postak gure postontziak gainezkatzen ditu. **Birusek, spywareek, adwareek eta phishingek** gure sistema informatikoak arriskuan jartzen dituzte. Nola ekidin daitezkeen erakutsiko dizugu kasu praktikoen bidez, eta gainera **doakoak eta kostu baxukoak diren soluzioak azalduko dizkizugu.**

Goierri

urriak 11

ORDIZIA

Goierri Lanbide Eskola

Ordutegia:

18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:

943 747 314

www.miramondigital.com

cursos@miramondigital.com

Sustatzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



euskadi
Informazio garatuak orain la sociedad de la información



e-gipuzkoa



Antolatzailea:



Miramon
Enpresa Digitala

ETXEBIZITZAK

salgai

Idiazabalen, kale nagusian, etxebizitza salgai. Guztiz berritzeko. 630949866.

Beasainen pisua salgai, Arana kalean. 943881919 (11:00etatik 20:00etara) edo Norte tabernan.

Beasaingo erdigunean pisua salgai. Guztiz berritua. Etxetresna eta altzariz hornitua. 3 logela, egongela, bainugela eta trastelekua. 679617159.

errentan hartu

Mutil batek pisu bat alokatu nahi du Goierri inguruan. 685711303.

konpartitzeko

Pertsona bat behar da Iruñean ikasle pisua osatzeko unitbertsitate gertu. 667804189.

Neska bat behar da Bilboko San Inazio auzoan pisua elkarbanatzeko. Metro eta autobus geltokitik gertu. 943884305.

Urretxu, Zumarraga inguruan pisu konpartitu baten bila nabil ikasketa garairako. 652729563.

Lagun bat behar da errentako pisua elkarbanatzeko Ordizian. 943161835.

GARAJEAK

salgai

Lazkao erdian garaje itxia saltzen da. 607837087.

Lazkaon garajea salgai. Herri erdian, eliza ondoko etxean. 943881627.

alokairuan

Garaje itxia alokatzen da Ordizian, Lukusin plazan. 615768977.

Beasaingo Igartza auzoan 35 metro karratuko garajea alokatzen da. 600329197.

Beasainen, Nafarroa Etorbidean, garajea alokatzen da txoko txiki batekin. 699511901.

HIZKUNTZA

eskaera

Jatorriz ingelesa den pertsona bat nahi da mintza praktikak egin ahal izateko. 615788542 (Nerea).

BESTELAKOAK

salgai

Sofak salgai: bat hirukoa, beste batekoa eta azkena relax erakoa. 943085224 (13:00etatik 16:00etara eta 20:30etik 22:30era deitu).

Fotodepilazio ekipo profesionala salgai. 8500 euro. 687436394.

Pianoa salgai dago, bigarren eskukoa. 687436394.

Orbea B&G Mountain Bike motako txirrindu bat saltzen da. Urtea baino gutxiago du eta oso egoera onean dago. 100 euro. 620135628.


Baxuarentzat anplifikadorea salgai, Pivi, Trace Elliot markakoa. 300 watio eta ia erabili gabea. 700 euro. Gauean deitu: 606653156.

Logela salgai. 1,50 metroko ohea, 2 gau-mahai, oheburua eta aparadorea ispilarekin. Egurrezkoa, oso egoera onean. 646048047.

GIPUZKOAKO ARTISAUEN AZOKA
ORDIZIA 2005

VIII.

ARTISAVALDIA



URRIAK 7 - 9
MAJORI KIROLDEGIA

ORDUTEGIA 10:30-14:00
17:00-20:30

www.artisaualdia.com



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO



beasain

IÑAKI ARIN
Aseguruak



943 888 702

Oriako Pasealekua, 20
BEASAIN

IBILGAILUAK

salgai

Audi A3, 1,9 TDI, beltza, 2002koa, egoera ezin hobean. Mantenimendu liburu, prezioa 15500 euro. 607512311.

Volkswagen golf autoa salgai, 4 urtekoa, oso egoera onean. Prezio interesgarria. 606061165.

Ford Scort autoa salgai. 1,8 i, 16v, 105cv. Oso egoera onean. 1500 euro. 657700944.

Opel Astra Caravan autoa salgai. SS-BD matrikuladuna. Oso egoera onean. 5.500euro. 635722056.

Autokarabana Hymer integrala salgai. Urtebetekoa. 699511901.

Opel vectra 2.0 GT salgai. Aire egokituarekin, engantxearekin eta beste hainbat extrarekin. Egoera onean. 617128654.

Volkswagen furgoneta salgai. SS-BF matrikuladuna eta ekipatua. Oso egoera onean. 629489990.

ANIMALIAK

salgai

Zaldia eta astoa salgai. Zama lanak egiteko aproposak dira. 662279939.

Saueso txakurkumeak salgai. Axi. 696999128.

oparitzeko

Txakurkume mestizoak oparitzen ditut. 619940982

Debaldeko iragarkiak:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com

LANA

eskaerak

Goierriko jatetxe txiki bate-rako zerbitzaria behar da larunbat gauetarako. Deitu lehenbait lehen. 943882893.

Lazkaon ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. 629416360.

Zaldibiako taberna batean zerbitzaria behar da egun oso-lana egiteko. Asteburuak jai. 652714413.

Aparejadore bat behar da, euskalduna eta Goierrikoa. Berehala lanean hasteko, esperientziaduna. 943161032.

Pertsona euskalduna behar da asteburuetan taberna batean barran lan egiteko. 943160205.

Zerbitzari bat behar da eguerdirako. 687609093.

Sukaldari bat behar da egun osoz Goierriin. 687609093.

Egun guztiz haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. 943881302.

eskaintzak

Neska batek lana nahi du zerbitzari bezala, garbitzeko edo beste edozertan. 676620931.

23 urteko mutila lan bila dabil igeltseritzan edo beste lanen batean aritzeko. 606044608.

28 urteko Beasaingo neska eskaintzen da goizez 3 edo 4 orduz lan egiteko dendan, okindegian...

Haur hezkuntzako ikaslea prest dago Beasain inguruan klase partikularrak emateko 6-10 urte bitarteko umeei. 675005172.

Emakume bat eskaintzen da batez ere asteburuetarako sukaldari laguntzaile, dendari, garbiketan edo beste zerbaitean. 628930435.

Magisteritzan diplomatutako neska euskalduna klase partikularrak emateko prest dago. 696597878.

Adinekoak zaintzeko edo etxeak garbitzeko lan bila dabil emakume bat. Esperientziaduna. 618928759.

Etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest dago emakume bat. 617769791.

Emakumea eskaintzen da gidabaimenarekin etxeko lanak egiteko orduka. 943889503/685714851.

Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko, hedade-tuak zaintzeko... 650940610.

27 urteko neska bat eskaintzen da goizez orduka haurrak zaintzeko edota etxea garbitzeko. Euskaraz badaki. 687374559.

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour
merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA

Ikastetnik

psikopedagogia zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztopoak
Diagnosia eta tratamendua

• Test-ak, Frogak • Tailerrak



Jauregi
TOLDOAK



INSTALATZAILE OFIZIALA



Laza

LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



SILVIA MIRAS CASASAYAS

ODONTOLOGOA

1001. Zia. 649 995.144/03



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



Lazkaoko dantzariak Lazkaomendin

1950. hamarkadan egindako argazkia da, Lazkaoko dantzariak Lazkaomendin saioa egin ondoren ateratakoa.

Zutik ezkerretik eskuinera: Ana Mari Aldanondo, M^a Angeles Azpiroz, Ana M^a Etxeberría, M^a Isabel Aldasoro, Pili Iriarte, M^a Karmen Urdangarin, M^a Pilar Zurutuza, M^a Angeles Aldasoro eta Angel Eztala.

Erdiko ilaran pikotxean: Joxe Antonio Oiarbide, Joxe Mari Perez, Jose Inazio Zufiria, Iñaki Begiristain, Patxi 'Tellatu', Antonio Irastorza eta, Joxe Mari Irastorza.

Aurrean eserita: Migel Erauskin.

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

Ikaskide

irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
solairuarte
943 160 120
Beasain

ikaskide@ikaskide.net
www.ikaskide.net

2005-2006 ikasturtea
Matrikula zabalik!

INFORMATIKA

- ✓ Tutorea
- ✓ Ordenadore bat ikasleko

INGELERA

- ✓ Azterketa ofizialak
- ✓ HEO, Trinity College, Cambridge

TAILERRAK

- ✓ Irakurmena/ulermena
- ✓ Arreta, konzentrazioa
- ✓ Ikasketa teknikak

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH, Batxilergoa
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Goi/Erdi mailako zikloak

Irakaskuntza mailako behar guztiak erantzuten dien zentru multidisziplinarioak



izal

☎ 943 187 049

☎ 943 187 045

Ondramuño baserria

IDIAZABAL

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko meua

☎ 943 88 77 26 **ALTZAGA**




Chipie
Confetti
Levi's
Ikks



ttipi - ttapa
umeen arropa denda

Santa Maria, 35 ORDIZIA tel.: 943 886 901



Gisasola
Mediku Osteopata

Gaisotasun gehienetzako tratamenduak ditu osteopatiak, nahiz eta mediku osteopataren helburu nagusiak osasun egokiaren mantentzea eta gaisotasunen aurrikuspena sustatzen dituen.

Minik gabeko tratamendu naturalak...

Bizkarreko mina - Artrosia - Osteoporosia - Tendinitia - Disko herniak

Buruko minak - Migrañak - Disfuntzio temporomandibularak

Beasain

Andra Mari 13 Entslo
Telefono Cita Previa 629 452 053


Tolosa

Avd. Navarra 14 Entsl. A
Telefono Cita Previa 943 651 422

Urretxu

Labeaga 66 Entsl. A
Telefono Cita Previa 943 725 566

o s k a r b i
oinetakoak



ordizia

beasain

zumarraga

arrasate